

TOKIKOM Publizitate Saria 2018. **Azken epaia.**

TOKIKOM PUBLIZITATE SARIAK 2018 deialdira aurkeztu diren proposamenak banan-banan sakon aztertu ondoren, epaimahaia osatu duten **Zuriñe Elordi Romero, Kike Amonarriz Gorria eta Estitxu Garai Artetxe jaun-andreek**, idazkari lanetan jardun duen Joxe Rojas Granjaren laguntzaz, ondoko hau erabaki dute:

1.- Jasotako lan kopurua handitze aldera, hurrengo edizioetarako aldaketa bat proposatzea sariketaren mekanikan. Lanak norberak aurkeztu ordez, TOKIKOMek berak aztertu eta kontuan har ditzala urte osoan bere sare komertzialaren bidez zabaldu diren iragarki eta kanpainak, eta ahal dela, kategoria ezberdinak ezartzea, papererako eta ikus-entzunezkoetarako. Gainera, agentziei zuzenean jakinaraztea deialdia zabaltzen denean.

2.- Aurten jasotako proposamenak direla eta, **ondoko biak izendatzea finalista gisa:**

- **Udal Euskaltegien kanpaina, Ongi etorri euskarara.** Kanpainaren alderdi estetikoa, izaera inklusiboa eta tonu alaia goraipatu ditu epaimahaiak, gauzatze tekniko zainduarekin batera.
- **URA agentziaren gabonetako agurra.** Kasu honetan, alderdi estetikoa nabarmentzen da beste aldean gainetik, hala irudi nola soinu aldetik. Alderdi birala ere nabarmendu dute epaimahaikideek.

3.- Azkenik, **2018ko TOKIKOM Saria ematea Arrasateko Udalaren 'Egin swing eta ahalegin' kanpainari.** Besteak beste, honako merituek goraipatu ditu epaimahaiak:

- Kanpainan euskara lehenestea (gaztelerazko bertsiotan euskarazko audioari eusten zaio, azpigituluekin bada ere).
- Gertutasuna erabiltzea amu gisa.
- Aniztasuna islatzeko ahalegina.
- Alaitasunak eta umore ukituak mezuaren transmisioa errazten dute.
- Produkzio aldetik lan eta ahalegin berezia jende hori guztia batu eta bideoa ekoizteko.

Amaitzeko, epaimahaiak eskerrak eta zorionak eman nahi dizkie lanak aurkeztu dituzten iragarle, komunikabide eta agentzia guztiei, eta animatu haien kanpainetan publiko euskalduna kontuan hartzen jarraitzeko, hurbileko hizkuntza erabiltzeak honelako mezuen eraginkortasunean duen eragin positiboa gogorarazteaz bat.

Durango, 2018ko urriaren 2an


Joxe Rojas,
epaimahaiaren idazkaria

TOKIKOM
CIF: 075069064